

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko urtarrilaren 19a

Egunkaria


Gehigarri honetan



Lesaka • Beti Gazte elkartearen 60 urteko historia biltzen duen liburua argitaratzeaz da
Mikel Okiñena • «Garrantzitsuena sortzeko beharra sentitzea da»



SEINALE ELEBIDUN MAITAGARRIAK



Administrazioan euskararen erabilera arautzen duen foru dekretua garatzeko plana aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak iragan astean. Plan horrek hainbat alor jorratzen ditu, baina zalapartarik gehien sortu duena errepideetako informazio seinaleei dagokiena da. Eremu mistoko seinale guztiak gaztelania hutsez jarriko dituzte. Aldaketa ez dute bat-batean egingen, baina egingen dute. Hortaz, ortografia akastun seinale elebidunei agur erran beharko diegu. NAFARKARIAK katalogo ttipi bat egin du seinale maitagarri horiekin.



Lesaka ●

Beti Gazte, liburu batean

Argitaratzearen da elkartearen 60 urteko historia
biltzen duen liburua

Bukatu berri den urtean, Lesakako Beti Gazte elkarteak 60 urte bete ditu. Aparteko ospakizunik gabe iragan da urteurrena, baina argitaratzearen da ibilbide hori guztia biltzen duen liburua. Argitalpena Aitor Arotzena kazetari lesakarrak prestatu du, euskara eta gaztelaniazko bi ediziotan. Bakoitzak 352 orri ditu.

AZKEN 60 URTEOTAKO BIZIMODUAN garrantzi handia izan du Beti Gazte Elkarteak Lesakan. Gaur 820 bazkide dituen elkarteak arlo anitz landu ditu, nahiz eta azken urteotan futbola eta sokatira nagusitu diren. Elkarteak 1940an sortu zen; gerra ostean, beraz. Lehenbiziko urratsak, hala ere, 1938an egin zituen, *Acción Católica* taldean gazteen sail bat eratu baitzen. Hortik, kirola bultzatzeko —futbola batik bat—, talde sendoago

bat eratu zen, eta Beti Gazte izena hartu zuen. 1940ko abuztuaren 9an osatu zen taldea. Futbola ez ezik, pilota, mendia, txirrindularitza eta atletismoa landu zituen Beti Gazte. Sanferminetako ezpata-dantzari taldeak ere arduratzen zen. Kirola lantzea ez ezik, antzerki eta zinema emanaldiak ere ematen zituzten. Bitxia bada ere, zinema eta antzerki emanaldietan biltzen zen diruari esker lortu zuten futbol taldeak jarraitzea. Errepublik

kako presoek egin zuten Kristo Enea futbol zelaia, eta haren gastuak eta ondotik arbitroek eta taldeak berak zituen gastuak emanaldi horietan bildutakoarekin ordaintzen zuten.

Ibilbide aski gorabeheratsua eduki du taldeak, hala ere. «Kultur arloan moteldu egin da, nahiz zenbait lehiaketa eta sariak antolatzen diren», argitu du Aitor Arotzenak, liburuaren egileak. «Orain, kirola da nagusi».

Herritarren elkarteak

Hasieratik herritarren elkarteak izan da Beti Gazte. «Hasieran erlijio kontuak, portaera ona eta gisakoak eskatzen ziren. Geroza baztertu zituzten kontu horiek», azaldu du Arotzenak. Hala ere, lehen, orain bezala, herritarren elkarteak izan da Beti Gazte. Alzategabaitan hasi, Otxogorriengan segi eta, 1994az geroztik, Eskriboenea-Alondigan du egoitza. Orain bi urte 600 bazkide dituen elkarteak. Azken bi urteotan, 820raino iritsi da kopuru hori, eta ez bakarrik Lesakako bazkideekin, baita Bortzirieta, Doneztebe edo Sun-



Taldeko zaleak 1948an Bidasoako I. Txapelketa irabazi izana ospatzen. ● BETI GAZTE



Lesakako Beti Gazte futbol taldearen lehen partidako hamaikakoa, 1940koa. ● BETI GAZTE

billako jendearekin ere. Gaur egun futbola da nagusi elkartearen. Orain 25 urte, ordea, motel zebilen futbola. Orain, aldiz, talde mordoak dabil. Horrek protagonismoa kendu die txirrindularitzari —erabat ahul dago— edo atletismo eta pilota taldeei, horiek desagertu baitira. Azken markadetan, baina, saskibaloia taldea edukitzea lortu du, baita xake ordezkariak eta arbitro taldea ere, eta igeriketa txapelketak antolatu ditu eta sokatira tal-

dea osatu du. Horrek ekarri dizkio elkarteari lorpenik handienak, iaz Munduko Txapelketa izan baitziren Holandan, Euskal Herriko eta Nafarroako hainbertze txapel jantzi ostean. Futbolearen ere lorpenak erdietsitakoak da, batik bat hasierako urteetan, Bidasoako Txapelketa eta Copa Frontera irabazi baitzituen. Pilotan ere sari franko irabazitakoak da.

→ Jon Abril

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Ez dut ezer tamainaz txiki izatea tokatu zaionaren kontra, baina txiki izate horrek batzuegan sortzen dituen konplexuen beldur naiz. Izan ere, konplexuek bultzaturik, gizonito horiek gizateria osoa etsai ikusten dute haien gainetik.

Eta boterea eskuratzen dutenean... Kontuz!!!!

Ederki asko egiten dituzte bereak. Maquiaveloren kontseiluak eta edozein tresna erabiltzeko gai dira beren helburuak lortzeko ballagarri baldin badira.

Agurtu berria dugun mendean ezagutu ditugu horrelako batzuk. Hitler eta Franco, adibidez. Beste batzuk XX. mendean jaio eta XXI. a iristear zegoela egin dira buruzagi: Aznar eta haren aginduetara dagoen gure paddle jokari trebea. Corellakoak munduratu nahi omen du nafar izaera nafar guztioi lotsa emanaraziz.

Barre egiten genuen Agur Jaunak dantzatzen zuene-

XXI.eko gizonttoa

an, edota hainbat aldiz gure toponimiak izenak entzuten genizkionean. Azken garaietakoak ez dira irri egitekoak.

Bakea hitzarekin betetzen zaio ahoa eta gerra ereiten du etengabe.

Oraingoan, Europako zentzu oneko hizkuntza-arau guztiak hausten dituen dekretu baten bitartez, euskara ezabatu nahi du nafar gehienak bizi diren lurretan, nafar-euskaldun kopururik handiena duen lur eremuan, alegia. Nafar guztiak zerbitzatzen dituen administratziotik uxatu nahi du nafar hizkuntza. Ikastola eta eskoletako testu-liburuak; errepideetako seinaleak; foru administratzioko agiri elebidunak; euskarari buruzko liburuak; Eusko Ikaskuntza, Nafarroako Diputazioak duela ia mende bat sorturiko kultur erakundea; Nafarroa Oinez; Olentzero; euskal komunikabideak... Denak molestatzen dio!!!!

Ez du aintzat hartu Mariano Izetak merezi zuen ohorea

ere. Nafarroako botere faktikoen ez dituzte errespetatzen ez biziak ezta hilak ere. Faxismo kulturala, pentsaera bakarra, genozidio kulturala. Horrelakoak entzun dira publikoki egoera baloratzerakoan. Eta ez dira ez, gehiegizkoak, esandako horiek. Eta erruduna ez da bakarrik paddle-jolosten aberia hartu duena eta bere partidua. Laguntzaileak badituzte horiek beti edozertarako prest. Ez ziren bestela horren harro eta segur ibiliko gizonttoa eta bereak, egiten dituzten astakeriak egin ondoren. Ergelaren laguntza ematen hor dabilta —eman bai eta trukean ezer jaso ez— Lizarbe eta geratzen zaizkion jarraitzaileak.

Betiko leloan ari dira horiek guztiak erromatarretatik hasita.

Domuit vascones!!!!

Ba ez!!! Oraindik ez, gutxienez!!!! Ez gaituzte menperatu. Are gehiago: EZ DUZUE LORTUKO.

Lekunberri ●

Aralar Udal Musika Eskolak 30 urte bete ditu eta, hori dela eta, azkenaldian hainbat ekitaldi egin ditu. Abenduaren 22an Leitzako zinema aretoa txiki geratu zen Aralar musika eskolak egin zuen kontzertua ikusteko.



Aralar musika eskolak 30 urte bete eta hainbat ekitaldi antolatu ditu hori ospatzeko. Hilaren bukaeran kontzertua egingen dute Lekunberri. ● MIKEL SAIZ

KONTZERTU ARRAKASTATSU hartan denetara Leitzako eta Aresoko hemeretzi lagunek abestu zuten. Eskolako irakasleak instrumentalista gisa aritu ziren, eta emanaldian zineman bildutako jendeari ere kantatzeko proposatu zioten eta, azkenean, sekulako giroan igaro zen musika eskolak bere urtemuga ospatzeko antolatutako lehen emanaldian.

Eskolak Gabonetako saskibat banatu nahi izan zuen ikusentzuleen artean, baina zenbaki sariduna ateratzen ez zenez, gonbita egin zuten baten batek abestera ateraz gero beretzat izanen zela. Neskato batek eraman zuen saskia.

Marrakzi lehiaketa ere antolatu dute, eta arrakasta izan du. Jose Jabier Irigoien musika eskolako zuzendariak azaldu duenez, 81 marrakzi aurkeztu dituzte denetara. Gaia musika eskola zen, eta "lan bikainak" ikusi ahal izan dira maila guztietan.

Zazpi eta hamaika urte bitarteko egileen artean, zazpi urteko Errazkingo Ruben Buldainek egindako lanak jasodu sari na-

Musika eskolaren urteurrena

Aralar musika eskolak 30 urte bete eta hainbat ekitaldi antolatu ditu hori ospatzeko

gusia: disko konpaktuak entzuteko tresna eskuratu du. Goizuetako hamar urteko Jon Zabalek lortu du bigarren saria: disko sorta. Opari bera jasoko du hirugarren postua erdietsi duen zortzi urteko Oihana Iraola leitzarrak. Dirudienez, musika eskolakoek kamisetak ateratzeko asmoa dute, eta baliteke Oihana Iraolaren marrakzia erabiltzea horretarako.

Hamabi urtetik gorakoek ere izan dute marrakzi lehiaketan

parte hartzeko aukera. Atalluko Nerea Zabalak eskuratu du sari nagusia eta Beteluko Ana Mari Saralegi sailkatu da bigarren. Azkenik, originaltasunaren saria Lekunberriko Alex Bezdicek eraman du.

Kontzertua hilaren bukaeran

Aralar musika eskolak kontzertua eskainiko du hilaren azken igandean Lekunberriko Mitxausenean kultur etxean. Eskolako

Lekunberriko, Larraungo, Bete-luko, Goizuetako eta Ultzamako ikasleek eskainiko dute kontzertua eta, Irigoienek esan duenez, mota guztietako abestiak eta soinuak entzungo dira. Halaber, kontzertu horretan marrakzi lehiaketako irabazleei sariak emanen dizkiete. Eta lan horiek ikusgai izanen dira Mitxausenean, irabazleenak zein parte hartu duten guztienak.

→ Eli Belauntzarán

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Argazkiak eta tunelak

Martin Goikoetxea *Goiko* beratarak 25 urte daramatza herrian argazkiak ateratzen. Urtarrilaren bukaeran Zaragozan banatuko diren Goya sarietarako Goikoren argazki bat proposatu dute, eta berriki, gainera, lau argazki saritu dizkiote Espainiako argazkilari profesionalen lehiaketan. **Ttipi-ttapa** aldizkariak Goikori egindako elkarrizketa bildu du bere azken zenbakian, eta ondokoak dira argazkilaria errandakoak: «Argazkilari profesionalen lehiaketara zortzi argazki bidali nituen eta lau saritu dituzte. Horietako bat

argazkilaritzako Goya sarietarako proposatu dute. Orain iduri du denak koloretan izan behar duela, edo digitala, baina nik oraindik xuribeltza maite dut eta nire kontura egiten ahal ditudan lanak horrela egiten ditut. 70eko hamarkadan hasi nintzen. Kamara erosi eta komunean lehen argazkiak errebelatzen hasi nintzen. Gero andrea eta bion artean denda paratu genuen. Toki gehienetan egoten gara eta herriaren eta eskualdearen historia biltzen dugu gure argazkietan».

Bestalde, Belateko tunelek ez dituztela

suhiltzaileek aholkatutako segurtasun neurriak betetzen aipatzen du **Ttipi-ttapa** azken zenbakian: «Belateko tunelak 2,9 kilometro ditu eta Almandozkoak 1,2. Ez dute larrialdietarako aterabide bakar bat ere. Kasurik larrienean, Belateko tunelaren erdi-erdian sua gertatuko balitz, gidariek kilometro eta erdi egin beharko lukete zulotik ateratzeko. Hori bai, Belaten 33 kamara daude eta tenperaturaren gorabeherak somatzen dituzten laser izpiak. Ur tuboa eta 59 iturri ere badaude barnean, bai eta aparra eta estintoreak ere».



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Depre

Lehengoan hemengo periodico nardargari batean zuzendariari bidalitako eskutitz batean irakurri nuen: zer edo zer egin beharko zuela Udalak Takoneran biltzen diren estornino edo araba-zozoen aurka, asko dirrela, eta kaka asko egiten dutela biltzen direnean, eta berak ikusi duela lasterka edo paseatzen ari den jendearen gainean bortizki egiten dutela kaka, milaka, eta zaratari buruz zer esan?, eta guos, guos, guos, eta horrela...


Eta konturatu nintzen orain dela gutxi araba-zozo horiek ikusirik «hara beste urte bat» pentsatu nuela. Iaz edo orain dela bi urte horrelako zutabe batean txori horiei buruz hitz egin nuen, txori horien garaia baitzen, eta dagoeneko bete da berriz ere urtearen itzulia, eta berriz ere hemen ditugu txori horiek Takoneran lotan, nire teilatuaren ondoan saguzarrak lotan dauden modu berean (Xaxak gauero teila handi horren gainera doa itxaropenez usaintzera, baina ez dira udaberria arte aterako, gaixoa) eta Gazteluko plazan ere buztanikarak biltzen dira, beti bezala, negu guztietan egin ohi duten bezala, elkarrekin lo egitera. Eta pentsatzen hasia naiz ez ote dudan jada nire zutabearen itzulia bitan edo beteta, nire inguruan dauden gauza guztiak aipatuak, dena esanda. Eta neska-lagunak esaten dit horrelakoetan: «Zu depre zauden». Hori izango da. Depre nagoela. Horregatik izango da kristoren kiratsa hartzen diodala hiri honen hiritar kakaiei. Horregatik zuzendariari bidalitako egile tontolapiko horien burutazioak jasangaitzak iruditzen zaizkidala. Tontolapiko horiek nahiago dute «Rebajas de Enero» direla entzunda urtearen itzuliaz ohartzea. Edo «es invierno en el Corte Inglés» entzunda. Horregatik izango da Gazteluko plazako zuhaitzak bota nahi dituztela, eta udazkenaren orbela edo neguaren arrasto zikinak eta zaratatsuak ezabatu, kotxe putaren gloria. Jakin dezatela tontolapikoek saguzar xalatari batzuk ditudala leiho ondoan. Etor daitezela azkar eskopetarekilian. Animo! Gutxi falta zaizue tontolapiko izorratuen erreinu izorratzaile den Iruñe hau ongi borobiltzeko. ●

Museorako prest

Eremu mistoko seinaleak gaztelaniaz soilik paratuko dituzte aurrerantzean, azken urteotan egin duten bezalaxe

Nafarroako Gobernuak aurkeztu berri duen planari jarraiki, eremu mistoan erabiliko dituzten errepide seinale, argitalpen, iragarki, inprimaki eta zigilu guzietatik desagertu egingo da euskara. Seinaleenak sortu du zalapartarik handiena, seinale elebidunen aldatzea «berehala» egingen zutela erraten baitzuen planaren testuak. Seinale horiek katalogo tiki batean gorde nahi izan ditu NAFARKARIAK, gure errepideetatik desagertu aitzin.

Eremu mistoko udalerriak



PLANAREN TESTUAK ARGI ETA GARBI ERRATEN DU seinaleak «berehala» aldatu behar direla. Gobernuak, baina, atzera egin du sorturiko iskanbila ikusita, seinale elebidun guziki aldatzeak dirutza kostatuko bailuke. Herri Lan kontseilari Jose Ignacio Palaciosok adierazi zuen gutika egingen zela aldaketa, seinaleak zaharkitzen edo hondatzen joan ahala. «Ele bitan jartzeko izan zuten lastertasuna ez dugu guk izanen», erran zuen Palaciosok.


«Lastertasun» handirik ez zuten izan, ordea. Iruñerrian seinale elebidunak paratu zituzten, baina ez hortik kanpoko eremuetan, ez Estellerrian, ezta Zaraitzun edota Erroñkarin ere.

Lizarran, Abartzuzan edo Deierri dena dago gaztelaniaz. Zaraitzun eta Erroñkari ibarrean, herrietako sarreran paratzen dituzten seinale guzikiak

gaztelaniaz daude soilik. Ezkaroze eta Izabako Udalek duela hiru bat urte onartu zuten herriko izendapen bikoitza. Eta Herri Lan Departamentuari eskatu zioten seinaleak aldatzeko. Baina kasurik ez. Beste herri batzuek eskaera bera egin dute. Kasurik ez. Hori ikusirik, Pirinioetako Partzuer-goak duela zenbait urte seinale horiak jarri zituen herrietako bi izenekin. Eta UPN Nafarroako Gobernuan dagoenetik, Iruñerrian paratu dituzten seinale gehienak ere gaztelania hutsean dira. *Pamplona-Iruña* bezalako binomioak besterik ez dituzte mantentzen. Hortaz, euskara eremu mistotik desagertarazteko planak, larria izanagatik ere, dagoeneko egingen zutena besterik ez du arautu.

→ Asier Azpilikueta

ARGAZKIAK: MIKEL SAIZ



Zenbait herriren desagert

UPNren Gobernuaren plana betez gero, lehenago edo geroago, errepideetatik ez ezik, errealitatek ere desagertuko dira gaztelaniazkoaren euskal ordaina Mutiloabetei dugu. Baina seinaleetatik ageri da. Berez, Mutiloa Bethi izenekorik ez dago, baina Gobernuak betetzen badu, betiko desagertuko zaigu.



Desagertzeaz

Herri Lan Departamentuko buru Jose Ignacio Palaciosok iragan astean gogorazari zenez, «seinale guziki iraupen zehatz bat dute eta, denboraren poderioz, aldatuz joan behar dira». Hala, ezker edo inork eragozten ez badu, irudiko bi seinaleak bilte-gira eramango dituzte laster. Olatz herriko sarreran daude biak, zaharrak dira, okerturik daude, porlanetik ateratzeaz. Baina ahal duten moduan iraupen dute hor, zutik:



Azken urteotako joera

Eremu mistoan azken urteetan jarri dituzten seinaleak gaztelania hutsean dira. Bada salbuespenik, Iruñerri buruzko informazioa ele biz jarri dute azken karteletan. Baina beste herri guziki izenak eta horien gaineko informazioa, gaztelaniaz edo gaztelaniazko grafiarekin (Ansoain – casco antiguo, esate baterako). Halaber, erran dezagun Nafarroa osoko karteletan beti agertzen dela Francia, eta inoiz Frantzia. Irudian ageri den seinalea Iruñeko iparraldeko ingurubidean da, eta duela pare bat hilabete paratu zuten.



Zentrora joateko?

Erdi alde, irribarnea, hiri barnea eta hiribarnea. Iruñea hiriko erdialdean gero, lau aldera horiek aurkituko ditugu. Laurek leku bera seinalatzen ikusiko dugu Udalak bertan paraturiko kartel guziki ele bietare, baina? Kartelek elebidunak izan behar dutela agintzen dute Iruñerriaren ordenantzek, eta halaxe dira. Baina argi dago Iruñerriaren seinaleak bezain ona eta kartel gehiago jarri behar direla. UPNren Udala atzinalizazio plana gauzatzea, Gobernuaren dekretuak bertan eraginik ote.



Eta honekin zer?

Nafarroako Gobernuaren plana nola gauzatuko duten jakitea ez da erraza. Adibidez, zer egingen dute ondoko irudian ageri den seinale horrekin? Uhartre ondoan dagoen bidegurutzetik arriak baten berri ematen du, bost hizkuntzetan (gaztelaniaz, euskara, ingelesez, frantsesez eta alemanieraz). Demagun, auto batek istripua duela eta seinalea botatzen duela. Paratuko duten seinale berria, ezabatuko ote dute euskarazko Kontuz hori? Euskarazkoa kendu eta Attention edo Achtung horiek mantendu dituzte?



Baita ugaldak ere

Euskara eremu mistoko seinaleetatik desagertarazteko Gobernuaren errepide seinaleei eragiten die, batez ere. Baina errepideetan bestelako seinaleak daude; hala nola, geografia kontuen berri ematen dituztenak. Koadrearen izenek ere gaztelania hutsean agertu beharko. Ulzama ibaia izanagatik igarotzen da. Arren «a» gabeko Ulzama rio eta ibaia da. Atarrabiatz hori sinbolo batekin ordezkatu eta euskal grafiaren «a» horrekin idaztea. Zein aldatuko dute?



Bitoriara joateko, eskuinetik

Eremu mistoko seinaleak gaztelaniaz soilik idatziko dituzte hemendik aurrera. Horixe dio behintzat Gobernuaren planak. Zehatzagoa litzateke erratea hemendik aurrera gaztelaniazko grafiak soilik idatziko dituztela. Izan ere, euskarazko izenak ezabatuko balituzte, kartelak hutsik agertuko liriteke anitzetan —maiz euskaraz soilik agertzen direlako idatzita—. Nolanahi ere, zaila da sinestea Pamplona-ren ondotik Iruña kenduko dutela, San Sebastian-en ondotik Donostia, Bilbaoren ondotik Bilbo edo bertzelakoan, Vitoria-ren ondotik Gazteiz. Gazteiz?!



Noraezean

Errotxapea ala Arrotxapea. Iruñea ala Iruña. Toki izenak euskal grafiak idatzeko orduan, batzuetan, irizpide edo jarraitasun falta sumatzen da. Horren gibelean euskararen beraren normalizazioa eza dago, behar bada; baina baita zenbaitzuen axolagabekeria ere. Iruñeko auzoaren izen egokia Arrotxapea da, baina herrietarek, batez ere, Errotxapea darabilte. Iruñea da Euskaltzaindiak egokitzen joan zuten aldea, baina Udalak Iruña ofizialdu zuen. Nafarroako Gobernuak Pamplona eta Rochapea idatziz konponduko du nahasmena.



Testurik luzeena

Zenbait kamioi eta autobusek Iruñean aparkatzea debekaturik dutela ohartarazten duten seinaleak daude hiriko sarreretan. Ziurtenik, eremu mistoan aurki daitekeen euskarazko testurik luzeena da; eta, kasu!, ez du ortografia akatsik. Antzeko beste seinale motzago batean, ordea, honakoa dio: «Hiri baretetik debekaturik, 2 eje baino gehiagoko eta articulatuak diren ibilgailuak».

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Zakarias Lekunberri toreatzaile bizkaitarra

Ez dira gutxi historian zehar Euskal Herriak eman dituen toreatzaileak, dena dela, Zakarias Lekunberri bezalako toreatzaile xebreak gutxi izan dira gurean: marinela bipila, toreatzaile ausarta eta euskaldun zintzoa.



Zakarias Lekunberri Sagastume Busturia aldeko Murrutetan jaio zen, 1887ko azaroaren 5ean. Gazte zela kresala urriak erakarrik itsasoratu zen marinela. *Mundaka* izeneko ontzian lehenbizi eta *Nemroden* geroago, hamaika harat-hunat egina zen Lekunberri, bereziki Galdakaotik Sevillara dinamita garraiatzen. Sevillara joan zen batean zezenketa kurios baten ikustea egokitu zitzaion. Segur izeneko aberats mexikarrak eta Algecirasko Morenitok elkarrekin eginiko zezenketa hain zuzen ere. Ikuskizun aztigarri hark zeharo kitzikaturik, geroztik toreatzea baizik ez zuen izan buruan Lekunberri, eta hortaz, ametsi ezin gehiago eutsiz, Andaluziara joan zen beste batean, itsasontzitik eskapi eginik, han geratu zen bizkaitarra torerogai.

Lanbide berria Luis Riosen zezentegian topatu zuen, zezentzain, toreatzearen sekretuak ikasten zituen bitartean, kapeaz kapea joaki. Beharreko ikasketak eginak zituela iritzirik, Bizkaitara itzuli zen, eta estreinako zekorreketa Indautxun egin zuen, 1909ko urriaren 24an. Jendaurrean eginiko lehenbiziko agerraldi hura aintzagaria izan zen. Hil behar zuen lehenengo zekorrek hiru zaldi kalitu zituen, eta Lekunberri bera ere airean bota zuen zilipurdika hiltzera abiatu zenean; belarri bat irabazi zuen baina. Dena den, zekorreketa iraun zuen bitartean gero eta indartsuago botatako erauntsiak bertan behera geldiarazi zuen ikuskizuna. Ordutik aitzina, Lekunberri eginiko zekorreketa asko izan ziren, eta esate baterako 1911n hogeita hamar bat alditan toreatu zuen. Alabaina, zetozen urteetan gero eta urriagotan kontratatu zuten, eta 1918an Irunen, Donostian eta Bilbon bakarrik

toreatu ostean, tximaia moztu zuen zezenen aurrean toreatzeko aldatutako hartzetxe. Itsasora itzuli zen orduan. 36ko gerratean faxisten aldean lerratu zen. Ez zuen eragozpen handirik bada faxistei armak eta soldaduak batetik bestera bere itsasontzian eramateko. Behin gudaldia amaiturik, Queipo de Llanok kondekoratu zuen. Zenbait urte geroxeago, Garcia Vilariño berriz ere kondekoratu zuen, bere izen bera zeraman itsasontzia pilotatzen zuenean.

Urteetan sarturik, eta gazte zenezko txaloak berrentzun nahirik, sorterrian toreatu zuen hartzara 1949an, bertako katekesiarentzako zein udal pilotalekuarentzako dirua ateratzearen. Egun hartan Bizkaiko apezpikua bera ere bertaratu zen, eta ohi

zuen legez, euskaraz eskaini zuen zekorreketa: «Erriagaitik eta bertoko emakume galant guztiak gaitik». Zekorrek hartu eta saihets pare bat hautsi zizkion murrutarrari. Huraxe bere azken aldia zatekeen zekorren aurrean jartzen zela. Urte zenbait geroago, 1960ko abuztuaren, Kanarietatik *Pedro de Valdivia* bere azken itsasontzian Bilbora bueltan zetorrela zendu zen, bihotzkoak jota.

Zakariasen pasadizo xebrerenetakoa Nafarroan gertatu zen. Corellako neska batekin maitemindu zen, alabaina haren gurasoei ez zitzaion sobera laketa haien alaba toreatzaile batekin elkartzeko, eta harremana zailtze aldera, Cintruénigora eraman zuten. Huraxe Lekunberrirentzako nahikoa zailtasuna gertatu ez zenez, neska Zaragozako lekaidetxe batera eraman zuten. Halarik ere, eta Bartzelonan zekorreketa zuela profitatuz, toreatzaile bizkaitarrak bere maiteari egin zion bisita erromesez jantzirik. Ateko moja azkarrak, jakinararen gainean egonda, komentuan sartzea debekatu zion, eta ikusirik Lekunberri tematzen zela Guardia Zibilari abisua emanen ziola mehatxuarekin izutu zuen. Zenbait urte geroxeago, alabaina, Teresarekin ezkondu zen, bere itsasontzi bati izena emanen zionarekin hain zuzen ere. Kasualki, itsasontzi hura hondora joan zitzaion Lekunberri.

Lekunberri esan diren aunitzetatik ausaz Unamunok esana dateke Muruetakoa hobekien definitzen duena, edo behinik behin guri gehien gustatzen zaiguna: «El gran busturiano Lecunberri, que según lo que me han explicado, pues yo no lo he visto torear, torea en vascuence, sin traducir».



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Erne ibili beharra dago merkealdian. • MIKEL SAIZ

Beherapenak gora

Gogorra da, gero, aldapa. Egunak moztu dira, hila beteak, berriz, bide luzea du aurretik. Lehenbailehen iritsi nahi dute. Karrketan jende ugari dabil korrika eta presa-ka, amasestuka. Trafiko gehiago sumatzen da azken egunotan Iruñean. Bigarren Zabalgunean eta Alde Zahararen inguruan pilotzen dira auto gehienak. Hasiak dira negualdiko beherapenak gurean.

Iratxe kontsumitzaileen elkarteko kide Mikel Bezunartearen ustez, «Gabonetan bezalaxe, jendea erotu egiten da orain, eta erosteko gosea pizten zaio». Carlos III etorbidean jende ilarak ikus daitezke hainbat dendaren ataritan. Behin barrura sartuta, beheretza eta behar ez dena itsu-itsuan erosten da sasoi honetan. Toki gehienetan bezala, hemen ere arrakasta itzela lortu du merkealdia. Hala ere, elkarteko kidearen aburuz, «begiratuagoak gara Iruñean, gehiago erreparatzen diogu erosten dugunari».

Dena dela, saltzaileek legez kanpoko hainbat trikimailu erabiltzen dituzte gu zorabiatzeko. «Iruñeko makina bat dendatan, merkatuta dagoen arropa merkatu gabekoarekin nahasian paratzen dute. Iruzur larriagorik ere bada: zenbait merkealdirako espreski eginiko arropa saltzen du berria balitz bezala. Sarritan etiketan agertzen diren salneurri zaharrak ez dira benetakoa. Beraz, prezio berria-

ren eta aurrekoaren arteko alde ez da hain handia». Hori gutxi balitz bezala, ordaintzerakoan leku askotan ez dute diru-txartel onartzen, eta erositakoa itzultzerik ez dago. Zer nahi ote dugu prezio horretan? Zer nahi ote dugu diru horren truke?

Gauzak horrela, prezioek behera jotzen duten era berean kalitatea ere eskasagoa izaten da. Bezunartearen esanetan, «erreklamazio asko egiten dira, Nafarroan asfaltatik oso zabaldua dagoen ohitura da; ongi ezagutzen ditugu, oro har, gure eskubideak». Nafarroako Gobernuaren arduraren beherapenen afera honetan legea betearaztea da. Gure lagunaren iritziz, «Administrazioak arrolagabe jokatzen du; baliabiderik ez izatearen aitzakian, ez dute benetako jarraipen eta ikuskaritza lana egiten. Gomen-dio simple zenbait ematera mugatzen dira».

Martxoaren 7a arte iraunen duen neguko merkealdian salmentak hirukoiztu egiten dira, batik bat arropa eta etxeko tresna elektrikoaren sektorean. Begera ere izanez gero, «erosketak egiteko une egokia da, batez beste %25 jaisten baitira prezioak», kontsumitzaileen ordezkariaren datuen arabera. Bilatu, alderatu eta hobe den zerbait aurkituz gero, erosi, atzetik datorrenak aurrea hartu baino lehen. Ez baduzu aukerarik orain, udako merkealdia San Fermin besten ondoren hasiko da.

Ziria

• Motxorrosolo •

Abangoardia

Hautsa harrotu beharrean, hautsez mukuru abangoardia. Inoiz eginkizun horren jabe izan zena pleguak ditu bereganatu. Erraldoiak hagitz gutxitan du arintasunaren bertutea. Larre motzekoek elikatu behar al dute hainbat ateren gakoa izan behar zena?

Mikel Okiñena

ESKULTOREA

«Garrantzitsuena sortzeko beharra sentitzea da»

Hogeita zazpi urteko etxalekuar honek Cadizko Fernando Quiñones lehiaketako lehenengo saria irabazi zuen, eskultura sailean, joan den hilabetean. Parte hartzen zuen bigarren aldia zen, eta 150.000 pezetako saria eskuratu zuen.



JOXE LACALLE

Pastora tumbada izeneko eskultura prestatzen topatu dugu eskultorea, Etxalekuko etxe atarian bertan. Horixe da, hain zuzen ere, hurrengo lehiaketan aurkeztuko duen lana.

■ **Fernando Quiñones lehiaketan parte hartzen duzun bigarren urtea da, eta lehendabiziko saria eraman duzu; izugarria, ezta?**

Sariak irabaztea zorte hutsa da: eskultura egokia aurkeztea, lehiaketa egokian, eta epaile egokiekin. Oso zaila da eskultura txar bat egitea. Nik, erakusketan bat ikustera joaten naizenean, nahiz eta niri ez gustatu, badakit zerbait ona ala txarra den, eta hori denek jakin beharko lukete.

■ **Nondik eta nola hartzen dituzu zure lanak egiteko ideiak?**

Batzuetan bat-batean etortzen zaizkit, baina gehienetan telebistan berriren bat ikusi eta zerbait bururatzen zait; gero pentsatu behar dut nola adierazi nik nahi dudana eskultura polit baten bitartez.

■ **Zure lan askotan kritika ironikoa egiten diezu aurrerapenari eta teknika berriei. Hori al da gehien kezkatzen zaituen gaia?**

Kezkatzen nau, bai. Egun jende guztiak dauka sakelako telefonoa, Internet... eta denok sartzen gaituz-

te gurpil horretan, diktadura bezalakoa da, mundu hau ekologistek gobernatu beharko lukete. Orain ere behi eroekin dagoen arazoa ez da tontakeria. Orain hori da, baina atzetik etorriko da beste zerbait. Lehen hengo jendeak hogeitahirekin aski zuen. Orain gutxienez 100 izan behar dituzu. Produkzio handiagoa, presio handiagoa, estres handiagoa... bizitza txarra da.

■ **Zeure burua artistatzat hartzen duzu?**

Ez. Garrantzitsuena sortzeko beharra sentitzea da. Nik gauza asko egin ditzaket, eta hor ikusten dira, baina ez nuke esango artista naizenik. Badira bestela-

koak ni definitzeko: mutiko bat, tipo bat, sokatiralaria...

■ **Beste eskultoreekin harremanak al dituzu erakusketak antolatzeko orduan?**

Ez, normalean bakoitza bere kabuz joaten da. Lagun bat badut, Carlos Alonso, Tafallako pintorea. Oso pintore ona da,

eta niri asko lagundu dit. Berak eskaini zidan Tafallan nire lanak jartzea bere koadroekin batera. Hark oso ongi daki Nafarroan zein zaila den pintore izatea, pintore asko direlako. Laguntza gutxi dago, eta beti hartzen dituzte bi edo hiru, aldaba onak dituztenak, eta horiei ematen dizkiete udaletxerako lanak eta horrelakoak.

■ **Arestian erran duzu Nafarroa zaila dela. Aukera ematen al dute zure lanak ezagutarazteko eta bideak irekitzeko?**

Zaila da, baina nik beti aurkitu ditut lekuak erakusketak egiteko. Dena den, normala da gaizki egotea. Zergatik izan behar dut nik laguntza hau egiteko? Zurgin batek, adibidez, ez baldin badu laguntzarik, zergatik izan behar dut nik? Iruñeko arte eskolan orain bost ikasle inguru daude bakarrik. Gutxi gaude, baina hori, nire ustez, gaizki eramaten dutelako da; izan ere, instalazioak Bilboko arte ederretakoak baino askoz hobekiak dira.

■ **Eta hemen, Euskal Herrian, zein da eskultoreen maila?**

Batzuk onak dira. Baina

«Aurrerapena diktadura bezalakoa da; mundu hau ekologistek gobernatu beharko lukete»

beste batzuk esaten dute oso eskultore onak direla, eta egiten dituzte 300 pilotari edo 300 harrijasotzaile. Nik, eskultore izanda, ezin dezaket pasatu hainbeste denbora hori egiten. Hori ez da eskultore izatea, hori ekonomista izatea da dirua irabazteko.

■ **Zer-nolako proiektuak dituzu aurrera begira?**

Akademia moduko zerbait prestatzen ari gara Iruñean uda aldean irekitzeko, hurrengo ikasturterako. Etxabe handi bat erosiko dugu hiru pertsonaren artean, eta taila, eskultura eta pintura tailerrak antolatuko ditugu. Bertan, erakusketak egiteko areto bat eta denda txiki bat ere jartzeko asmoa dugu. Horrelako tailerrak arrakastatsuek izaten dira, ez ikasteko bakarrik, harreman sozialak egiteko eta denok dugun sormena ateratzeko ere bai. Jendea harrituta gelditzen da zer egin dezakeen ikusirik.

→Txari Eleta




JOXE LACALLE

soslaia

Mikel Okiñena 10 urte zituenean Iruñeko Paules ikastetxera bidali zuten ikastera, eta ordurako gustuko zuen pintatzea eta gauzak egitea. Teruelen BBB ikasi, eta 17 urte zituela teologia ikasten hasi zen Zaragozan. Iruñean bukatu zituen teologia ikasketak.

Eskultura eta taila ikasketak Iruñeko Arte Eskolan hasi zituen, eta ikasketa bukaerako proiektuan bikain atera zuen ikasle bakarra izan zen. Lehenengo ikasturtean zegoenean, lehendabiziko erakusketara jarri zuen, Lekunberriko Mitxasenean kultur etxean.

Artetako Ulibarrena eskultorearen tailerrean lanean aritu zen, baina harremana ez zen oso ongi bukatu. Gaur egun arte ederretako lehenengo ikasturtea ikasten ari da Bilbon.



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Muturrekoak

Euskal kultura lurperatzeko lurrikararik balitz, Gobernuak El Salvador suntsitu duen bezalakoren bat bidaliko luke euskal lurralde honetatik euskal aztarna guztiak desagerrarazteko. Jakina denez, sistema politiko guztietan demokrazia da akats gutxien duena. Ezin erran, ordea, akats gabea denik. Horren froga da (ez demokraziaren alde ona, batzuk erratan duten bezala) ergelak ere gobernuetako kontseilari eta presidente izan daitezkeela, itzalean egon nahiago duten buru argikoek ibilita, txotxongiloak bezala.

Begi-bistan dago, bai, itzalekoak txotxongiloak inoiz baino nabarmenago harropuzten ari direla, duela hamar bat urte ezinezko ziruditen irainak eta erasoak lasai-lasai egin ditzaketela ikustean. Ezker-eskuin ari dira, muturrekoka, duela bi urte hasitako erasoaldiaren pauso guztiak banan-banan betez, hasierako ustezko progreen artikuluetatik erdara hutsezko karteletaraino. Milaka nafarren aurkako borrokan ari dira, probokazioak eginez, noraino hel daitezkeen frogatu nahian. Pasa den igandean Txus Iribarren kazetariak horiek guztiak biltzen zituen erreportaiari bikaina eskaini zigun. Nik igorle lanetan hasi eta beste datu bat gehituko nioke erreportaiari: hurrengo erasoak ikastolen aurkako izanen da, matrikula garaian segur aski.

Ez da oso argia izan behar konturatzeko hau dena ezinezkoa litzatekeela hemengo sozialistak normalak balira, alegia, nahiz eta sozialistak ez izan, nahiz eta hemengoa den euskal kulturarekiko maitasun minimorik ez izan, euskaldun eta euskaltzale guztion oinarritzko eskubiak errespetatu behar direla sinistuko balute. Baina horretan ere, Gobernuaren zikoizkeriarekin bat egiten dute.

Hirea Saramagoren kobazuloa bezain iluna, pentsatuko du baten batek. Tiral Belarrondokak alde guztietatik etortzeaz gain, igandean euskal derbia dugu. Realari irabazten badiogu, erabat hondoratuko dugu. Donostiarrak non eta Iruñean berpizten hasten badira, Iruñeko taldeari Salud izena jarriko lioketen erregionalista Osasunazaleak oso haserre ikusteko parada izanen dugu, baina Lotinaren taldea hondoratuko litzateke. Eta berdinketa ere ez da ona, ez Osasunarentzat eta ez donostiarrentzat. Hau desastrea! Hori besterik ez genuen behar...

gure aukerak

HITZALDIAK

► **Iruñea:** Hilaren 25ean, ostegunarekin, Urtzi Ihintza ENA elkarteko kideak euskal nortasun agiriaren gainean hitz egingen du Zaldiko Maldikon, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Tafalla:** Lizarrako Aretoko 38 margolari eta eskultoreen lanen erakusketa, Kultur Etxean, asteazkena arte.
- **Iruñea:** Pintzel galerian (Abejeras, 6) Jose Miguel Corralen margolanak daude ikusgai, hilaren 27a arte. Jaiegunetan 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.
- **Zizur Nagusia:** Patxi Idoateren margolanek osaturiko erakusketa bisita daiteke kultur etxean, hilaren 28a arte. Lanegunetan 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruñea:** Felix Reyren argazkiak eta olerkiak ikus daitezke Txantreako Auzotegin, hila bukatu arte, 18:00etatik 21:30era.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Sex Haizegoak Narrazio Erotiko Laburren VI. Lehiaketa eta Pintura Erotikoen IV. Lehiaketa antolatu ditu. Bi lehiaketetarako lanak aurkezteko epea hilaren 31n akitzen da. Lehiaketen inguruko xehetasun gehiago 948-177299 telefonoan edo www.haizegoa.com webgunean.
- **Uharte:** Kultur Etxeko eta Gaztetxeko logotipoen lehiaketa parte hartzeko lanak aurkezteko epea hilaren 31 arte dago zabalik. Logotipo bakoitzaren irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu. Lehiaketaren oinarriak Kultur Etxean jaso daitezke, 10:00etatik 14:00etara (San Juan plaza, 1)

edo Gaztetxean 17:00etatik 21:00etara (Zubiarte, 30). Bestela, informazioa 948-335016 edo 948-333431 telefonoetan ere lor daiteke.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

► **Iruñerria:** Iruñerriko IKaren euskaltegiaren otsailatik goitiko kurtsoetan matrikulatzeko epea zabalik da: Arturo Campion (948-222246), Barañain (948-188325), Atarrabia (948-332660), Mendillorri (948-162439) eta Ermitagaña (678-861773).

BESTAK

► **Zangoza:** Ospakizunak San Sebastianen ohoretan. Ostirala: suziaren jaurtitzea, udaletxearen gibelean, gaitari eta txistulariekin (20:00); Emilio Muñoz toreatzailearen eta Juan Arenas ganaduzalearen hitzaldia, Kultur Etxean (20:30); zezensuzkoa, Karrika Nagusian (21:00). Larunbata: prozesioa, San Salvatore elizaraino (11:30); haurrentzako entzierroa, Karrika Nagusian (17:00); zezensuzkoa, Karrika Nagusian (20:30), eta ondoren, Rocamador dantza taldearen

emankizuna; dantzaldia, Atlanta orkestrarekin (00:30). Igandea: Zangozako Hiria I. Jota Erronda (11:00); pailazo eta magia ikuskizuna, Karmengo entzutegian (17:00); dantzaldia, Zangozako gaitariekin (20:15).

BESTELAKOAK

► **Iruñea:** Nafarroako Esperanto Elkartekoak asteleheñero biltzen dira 19:00etan Iturrama zentroan (San Juan Bosco, 15 behea). Bertarajo dezake esperantoa ikasi nahi duenak.

• MIKEL SAIZ



Iruñerriko Corella

Corella hiria ehun bat kilometro ibili eta Iruñerrian kokatu zaigu. Antsoingo alde zaharraren ondoan, Ezkaba mendiaren magalean, Corella Hiria izeneko hotela eraikitzen ari omen dira. Horixe dio bederen hantxe paratu duten kartelak. Bitxia bada; Antsoainen hotela jarri eta Corella izena jarri. Bazituzten bertze batzuk aukeran: Ansoain-Antsoain, Comarca de Pamplona-Iruñerria, San Cristobal-Ezkaba Baina ez. Corella nahi zuten, eta Corella jarri diote. Horrelako burugogorkeriaren gibelean daudenak zein herritakoak (barkatu, hiritakoak) ote diren jakitea ez da zaila. Hurrengoa zein izanen da? Bozate Auzoa hostala Cabaniillasen?, edota Rio Ebro jatetxea Leitzan?